

ASKORA

Gizarte Erantzukizunari buruzko Memoria 2025

Askora taldea



Sektorearen arauak
aldatuz, hobetzeko.



Jon Ramos

Zuzendari nagusia

Askorak aurrera egiten jarraitzen du, lehengo asmo irmo berarekin: sektorea barnetik hobetzea, sektoreko arauak zalantzan jarrita eta pertsonak erdigunean ipinita. Azken urteotan gauza bat behinik behin frogatu dugu; alegia, jasangarritasuna ez da lan-ildo jakin bat, baizik eta hartzen dugun edozer erabakiren oinarria.

2024an hasitako bidetik jarraitzea erabaki dugu 2025ean, eta hartu genituen konpromisoak berretsi ditugu, dagoeneko gure bereizgarria bihurtu den egiteko modua finkatuta. Baina beste urrats bat ere egin dugu: ikuspegia kanporantz zabaldu dugu, bakarka jardunez ezin baita egiaz eragin.

Testuinguru horretan sortu da Askora Future Lab. Gune horrek islatzen du besteetara irekitzeko eta besteekin partekatu eta eraikitzeko dugun borondatea. Bertan, berrikuntzak barne-auzi izateari uzten dio, eta auzi kolektiboak bihurtzen da, non erronka sozialei eta etorkizuneko erronkei erantzuteko modu berriak ezagutu, konektatu eta esploratzen baititugu.

Bilakaera horren isla da, besteak beste, Galderak egitasmoa: galderak eragitea, elkarrizketak aktibatzea eta eremu komunak sortzea, elikadurak, hezkuntzak eta jasangarritasunak gure gizartean zer eginkizun duten hausnartzeko.

Gaur, Askora izaera irekiagoko antolakundea da, konektatuago dago, eta kontzientzia handiagoa du bere eragin-ahalmenaz. Eredu emanez inspiratzeko ahalmenean uste osoa izaten jarraitzen dugu, baina, berebat, berebiziko garrantzia aitortzen diogu beste pertsona eta antolakunde batzuek aldaketarekin bat egitea ahalbidetuko duten inguruneak sortzeari.

Etorkizuna ez baita eraikitzen ikuspuntu bakar baten arabera, baizik eta ikuspuntu askoren baturari esker. Eta bide horretan, akuilu, elkargune eta eraldaketa partekatuaren eragile izaten jarraitu nahi dugu.

“Eredu emanez inspiratzeko ahalmenean uste osoa izaten jarraitzen dugu, baina, berebat, berebiziko garrantzia aitortzen diogu beste pertsona eta antolakunde batzuek aldaketarekin bat egitea ahalbidetuko duten inguruneak sortzeari”



Iratxe Casado

GJHen koordinatzailea

Askoran denbora daramagu geure buruari galderak egiten. Batzuk egunerokoan sortzen dira, jantokietan, taldeetan edo ingurukoekiko harremanean gertatutako zerbaitean. Beste batzuk, aldiz, eten bat egin, eta gauzak perspektiba zabalago batez aztertzean agertzen dira. Galdera horiek, ordea, batzuetan ez dute erantzun argirik, halere, aurrera egiten laguntzen digute.

2025ean, jada gure egiteko moduaren parte diren konpromisoetan —GJHak, eragin soziala, koherentzia— oinarriturik egin dugu lan, baina, era berean, gune berri bat irekitzeko unea zela sentitu dugu. Gehiago egiteko baino gehiago, hobeto ulertzeko. Esploratzeko, partekatze, besteekin gogoeta egiteko.

Behar horren fruitua da Askora Future Lab: ez da proiektu itxi bat, baizik eta gelditu, aditu eta ikuspegi desberdinak konektatzeko leku bat. Gune horrek aukera ematen digu eguneroko logikatik irten, eta, patxada handiagoz, gure antolakundeak eta, oro har, gizarteak aurrean dituen erronken gainean pentsatzeko.

Bide horretan, egiteko modu horren lehen adierazpenetako bat da Galderak. Ekimen horrek askotan oharkabean pasatzen den zerbaitean jartzen du fokua, alegia, galderak eragitearen garrantzian. Elikadurari, hezkuntzari, jasangarritasunari... eta norberak horretan guztian jokatzeko duen eginkizunari buruz gogoeta egiteko gonbita diren galderak.

Izan ere, guretzat, berrikuntza egiten duguna eraldatzea ez ezik, gure ingurunearekin, gure komunitatearekin eta eraiki nahi dugun etorkizunarekin harremanetan jartzeko bide berriak zabaltzea ere da.

Agiri honetan jaso da prozesu horren zati bat. Aurten modu koherentean aurrera egiten jarraitu dugu, baina baita besteetara irekitzeko, besteekin partekatze eta ideiak kolektiboki hazi ahal izango diren guneak sortzeko borondatearekin ere.

Aurrera goaz ideia argi batekin: jasangarritasuna ez da helmuga bat, baizik eta beste pertsona batzuekin egoteko eta eraikitzeko bide bat. Eta bide horretan, aurrera egiten laguntzen diguten galdera berriak topatzen ditugu etengabe.

“Guretzat, berrikuntza egiten duguna eraldatzea ez ezik, gure ingurunearekin, gure komunitatearekin eta eraiki nahi dugun etorkizunarekin harremanetan jartzeko bide berriak zabaltzea ere da”



ASKORA



Aurkibidea

1.	Askora zenbakitan	Pág. 8
2.	Gure balioak	Pág. 12
3.	Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH)	Pág. 20
4.	Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) & Gure balioak	Pág. 26

Askora, zenbakitan

1.

Askoran Euskadiko ikastetxeetako, zaharren egoitzetako eta enpresetako jangelen kudeaketa eraldatzen dugu. Zerbitzua ulertzeko dugun modua erabat desberdina da: uste baitugu jangela bat jateko gune bat baino askoz gehiago izan daitekeela eta izan behar dela.

2025ean, 523 pertsona gara, eta 13.306.311,90 euroko fakturazioa lortu dugu. Ez dugu haztearren haztea biltzen — zentzua duen hazkundearen alde egiten dugu, zerbitzuaren kalitateak eta gure balioekin bat egiteak bultzatuta. Hartarako, lau jarduera-ildoren bidez lan egiten dugu:



13.3M €-ko

fakturazioa



523

pertsona



ASKORA ESKOLAN

Balio erantsi handiko jangelak diseinatzen eta kudeatzen ditugu, pertsonen ongizatea ardatz duten erakunde eta enpresentzat.



ASKORA Mahi-Mahi®

Askora Mahi-Mahi ikastetxeko jangelaren kontzeptua aldatzera dator. Jate hutsetik harago doan eredu bat, jangeletan eta jolastokietan esperientzia dibertigarri eta hezigarriak sortzeko.



ASKORA NAGUSI

Elikadura-zerbitzua ematen dugu zaharren egoitzetan eta eguneko zentroetan, hain zuzen ere, pertsonak eta haien ongizatea beren kudeaketa-ereduaren ardatz diren horietan.



ASKORA LANEAN

Balio erantsi handiko jangelak diseinatzen eta kudeatzen ditugu, pertsonen ongizatea ardatz duten erakunde eta enpresentzat.



Sektoreko arauak aldatzeko dugun
 espirituari leial, gure enpresa sostengatzen
 duten elementuetan lan egiten dugu.



Elikaduratik askoz harago doan
 ikuspegi batetik diseinatzen eta
 kudeatzen ditugu jangelak.



Pertsonen bizitza
 hobetzen duten esperientziak
 sortzen ditugu.



Zentzuzko berrikuntza. Beti
 galdetzen diogu geure buruari
 nola hobetu daitekeen, eta,
 horretarako, pertsonak ardatz
 hartzen ditugu.



Jangelak ikusteko modu
 berri batean sinesten dugu.
 Modu humanoago eta
 arduratsuago batean.




Jangela hobetzeak gure
 bezeroak berezi egiteko balio
 dezan konpromisoa hartzen
 dugu.



Tokiko ekosistema baten parte
 garela sentitzen dugu, eta hori
 gure proiektu guztietan zaintzen
 eta sustatzen dugu.

Zein izan da bilakaera
 azken urteetan?

Jantokiak bezero bakoitzaren
 eredua hobetzea nahi du
 Askorak. Horregatik, lan
 pertsonalizatua egiten dugu
 bokazio argi batekin: sektoreko
 arauak aldatzea, hobetzeko.



2025ean 58 zentro kudeatu ditugu Gipuzkoan, Araban,
 Bizkaian, Nafarroan, Errioxan eta Iparraldean banatuta.
 Aurreko urteko eremu geografiko bera da, oraindik ari baikara
 gure presentzia sendotzen lurralde berrietara hedatu aurretik.



2.

Gure balioak

Askoran, balioak ez dira asmo-adierazpen bat: erabaki, proiektu eta eraikitako harreman bakoitzaren ildo nagusia dira. Txikiak izateak handi egiten gaitu, zentzuz berritzea, zaintzen dutenak zaintzea eta gure ingurunea hobetuz hobetzea ez dira hitzak bakarrik, haietaz baliatzen gara egunero enpresa egiteko.

Gure balioak

2022an, gure balio-identitatea birdefinitu genuen; erabaki genuen sukaldaritza-zerbitzutik haratago joatea, eta ingurunearen nahiz pertsonen zaintzan esku hartzea. 2025ean, balio horiek dira, oraindik ere, erabakiak hartzeko eta munduarekin harremanetan egoteko iparrorratza.



Zaintzaileak zaintzen ditugu

Lan egiteko modu humanoago batean sinesten dugu, eta islatu egiten da bai eskaintzen ditugun zerbitzuetan, bai gure taldekideen harremanetan. Guretzat funtsezkoa da besteak zaindu ahal izateko gu ere zaintzen gaituztela sentitzea; horregatik, gure lehentasuna da gure taldeko pertsonen ongizatea. Hala, horien banako garapena erakundearen eta kanpoan sustatzeko baldintzak sortzen ditugu.

Gure ingurua hobetuz hobetzen gara

Bezeroei balioa ematea bezain garrantzitsua da gure mundua hobetzen laguntzea. Balioak sustatuz eta defendatuz egiten dugu, errespetua, berdintasuna eta zuzentasuna kasu. Gure inguruan inpaktu positiboa sortzeko gaitasuna daukagula uste dugu, bai sozialki, bai ingurumenean, bai ekonomikoki. Horretarako, ezinbesteko garrantzia ematen diogu gure proiektu guztiei.



Birdefinitzeko prozesuaren ondorioz, gure interes-taldeen (bezeroak, langileak, hornitzaileak eta komunitateak) komunikatzeko eta konektatzeko moduari buruz ere hausnartu genuen. Hala bada, Askora ulertzeko modu bat sortzen du, ez pieza isolatu gisa, baizik eta ekosistema zabalago baten parte den eragile gisa, eta bertan aukera du lankidetzaren eta ekintza partekatuen bidez bere balioa biderkatzeko.



Ikuspegi horretatik, azken urtean forma eman diogu Askora Future Lab-i: orainaldiko eta etorkizuneko erronka handiei heltzeko plataforma bat. Guneak dagoeneko bultzatzen ari ginen ekimenak biltzen ditu, eta lan-ildo berriak irekitzen ditu gure ingurunean sortzen dugun eragina are hobea izan dadin.

Zentzuzko berrikuntza

Berrikuntza baliatzen dugu pertsonen bitzita eta gure ingurunea hobetzeko. Zalantzan jartzen ditugu egungo jardunbideak egokienak diren, eta, hobetu daitezkeela uste badugu, inpaktu positiboko aldaketak ekar ditzaketen bideak aztertzen ditugu. Pertsonak beti gure zerbitzuen erdigunean jartzen ditugu, sektoreko arauak aldatzeko asmoz.

Txiki izateak handi egiten gaitu

Ez dugu handienak izan nahi, onenak baizik. Hori dela eta, eragile nagusien lehiatzeko moduetatik urruntzen gara. Eskala-ekonomietan eta prezio baxuetan oinarritzen dira; guk, ordea, balio erantsi handiko soluzioak eskaintzen ditugu, pertsonak eta ingurunearekiko inpaktu positiboa ardatz harturik. Aire freskoa ekartzen dugu zaharkitutako sektore honetara. Betikoa hautatu nahi ez dutenentzako konpainia perfektua.



Askora Future Lab

Askora Future Lab gunea sortu da, hain zuzen ere, elikadura, hezkuntza eta erronka sozial handiak lotzen dituzten erronken inguruan gogoeta partekatua, ikerketa eta berrikuntza bultzatzeko. Eskolako jantokiaren egunerokotasunetik haratago joateko borondatearekin sortu da, eta, beste eragile batzuekin batera, osatzen dugun sistema hobetzen laguntzeko.

Gunearen bidez, ikastetxeekin, familiekin, profesionalekin eta adituekin partekatutako ekintza sustatzen dugu, gaur egungo erronkak hobeki ulertzeko eta haiei aurre egiteko modu berriak aztertzeko. Kontua ez da soilik zerbitzu bat optimizatzea, baizik eta ezagutza sortzea eta hezkuntza- nahiz elikadura-esperientzian benetako eragina duten aldaketak aktibatzea.

Askora Future Labek ekarritako proiektuen artean Elikation izeneko dago, Euskal Herriko 500 familiak baino gehiagok parte hartu duten ikerketa-ekimen bat, gazteek elikadurarekin duten harremanean sakontzeko. Era horretako prozesuek aukera ematen digute entzuteko, ikasteko eta gure erabakiak errealitatearekin konektatutako ikuspegi zabalago batetik bideratzeko.

Azken urtean, gunea Galderak izeneko formatuan gauzatu da; alegia, topaketa-formatu bat gazteetan eta hezkuntzan eragina duten erronka handien gaineko gogoeta kolektiboa irekitzeko. Guneak nabarmentzen du galdera garrantzitsuak egitea, elkarriketa sortzea eta erantzun berriak modu partekatuan eraikitzen jarraitzea.

Guneak Askoraren zeregina nola ulertzen dugun erakusten du: eragin sozialarekin konprometitutako erakundea, elikadura tresna hezigarri gisa ulertzen duena, eta, aldaketarako motor gisa, lankidetzaren alde egiten duena. Izan ere, entzunez, ezagutza partekatuaren bidez eta elkarrekin aurrera egiteko borondateaz baino ezin baita eraiki eredu kontzienteago, osasungarriago eta jasangarriago bat.



Galderak 1.0: ingurumen-hezkuntza hautzaroan eta gaztaroan

Askora Future Laben esparruan, 2025ean Galderak topaketaren lehen edizioa egin zen Tabakaleran (Donostia).

Lehen topaketak gaur egungo testuinguruan bereziki garrantzitsua den erronka bat izan zuen ardatz: haur eta gazteen ingurumen-hezkuntza, aintzat hartuta gehiegizko informazioa eta, batzuetan, negazionismo klimatikoa nagusi den ingurunean irizpidea eratzeak zer konplexutasun dakarren.

Antonella Broglia, Asier Arambarri eta Aitor Pagaldai profesionalek parte hartu zuten saioan. Haien hitzaldiek abiapuntu gisa balio izan zuten elkarriketa irekitzeko eta hezkuntzak esparru horretan duen eginkizunari buruzko askotariko begiradak ezagutarazteko.


Galderak topaketa hurbil eta intimorako formatu gisa planteatzen da, elkarri entzuten eta parte-hartzaileen arteko trukea laguntzeko. Gunea pentsatua dago elkarrekin gogoeta egiteko, eta bertan ideiak esperientzia-aniztasunetik eta partekatzen ditugun erronkak hobeki ulertzeko borondateak eraikitzen dira.

Horrela sortu da Galderak, hezkuntzaren eta gure gizartearen etorkizuna markatuko duten erronka handiei buruzko hausnarketa partekaturako espazioak irekitzeko proiektu gisa.





Irudi korporatiboaren aldaketa

Gure balioak birpentsatzeko prozesuaren ondorioz, gure interes-taldeekin (bezeroak, langileak, hornitzaileak, etab.) komunikatzeko eta konektatzeko moduari buruz hausnartu dugu. Ildo horretan, gure irudi korporatiboa berritu dugu, eta gure balioetan zentratutako ikuspegia hartu dugu. Irudi berria aurkeztu dugu, argia eta ordenatua, gure balioak une oro transmititzeko.



Askoran badakigu nondik gatozen eta argi daukagu nora goazen. Ez mugitzea ez baita aukera bat, munduak eta egunero jaten ematen diegun milaka pertsonen beharrek egiten duten erritmoan eboluzionatzen dugu.



3.

Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH)


Oso argi daukagu gure eragina garrantzitsua dela. Horregatik, oso serio hartzen ditugu garapen jasangarrirako helburuak, eta, ekintza zehatzen bidez, zuzenean lotzen ditugu gure balioekin.

Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH)

Jasangarritasuna ez da moda bat Askoran, ezta gehigarri bat ere: erakundearen maila guztietan aspaldidanik txertatzen ari garen ardatz estrategiko bat da. Ongi egiteko, jakin behar dugu gure ahaleginak zein arlotan jarri behar ditugun, eta horretarako balio du materialtasunaren azterketak.

Gure jasangarritasun-batzordean funtsezko sail batzuetako (Giza Baliabideak, Finantzak, Zuzendaritza, Erosketak, besteak beste) pertsonak biltzen dira. Askoran jasangarritasuna ez da pertsona bakar baten erantzukizuna: erakunde osoaren konpromisoa da.

ESG (ingurumenekoa, soziala eta gobernantzakoa) materialtasun-azterketa bat egin dugu. Haren bidez gure interes-taldeentzako alderdirik garrantzitsuenak ez ezik, negozioan eragin handiena zein alderdik duten ere ebaluatzen da. Azterketa horretan oinarrituta eraikitzen dugu gure bide-orria.



Materialtasun-mapak arlo bakoitza koadrante batean jartzen du, haren garrantzi erlatiboa islatuta:

A Kritikoa

Lehentasun handienaz arreta eman beharreko arloak

B Oso garrantzitsu

Arreta jarraitua behar duten alderdiak

C Garrantzitsua

Pixkanaka zaindu eta hobetu beharreko arloak



Askoran egiten dugun ekintza orok 2030 Agendako Garapenerako Jasangarrirako Helburuak (GJH) lortzen laguntzen du. Basque Food Clusterrek proposatutako GJHei buruzko autodiagnostiko bat egin genuen, eta, hari esker, gure ekarpena zehatz-mehatz aztertu genuen, eta gure estrategia egituratzen duten GJHak identifikatu genituen:



▶ ODS ASKORAREN AURKEZPEN-BIDEOA


GJH Food tresna

Proiektu honen helburua zera da, Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) elikagai-enpresen jarduera ekonomikoan sar daitezela erraztea, haien helburuekin eta enpresa-estrategiekiko koherentziari euste aldera.




Gure inpaktua begi-kolpe batean

Ondorengo infografiak gure jardueraren ekitaldiko mugarri eta datu nagusien panorami-ka ematen du. Askoraren balio bakoitzak bere tokia du ikus-laburpen honetan, eta urteko ekintzak Garapen Jasangarriko Helburuekin nola egiten duten bat erakusten da.



523 pertsona



4.

Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH)



Gure balioak

Askoran gehiago egiten dugu esan baino. Horregatik, gure balioak eta garapen jasangarriko helburuak hurrengo orrialdeetan ezagut ditzakezun proiektu, ekintza eta jokabide zehatzetan batzen dira.



Gure balioetatik trakzionatzen


Askorako balioez ari garenean, ez gara esparru abstraktuez ari. Ekintza zehatzez, eguneroko erabakiez eta benetako eragina duten konpromisoez ari gara; hau da, taldeko pertsonengan, aukeratzen gaituztenengan, hornitzen gaituztenengan eta bizi garen eta lan egiten dugun komunitateetan.

2025ean norabide horretan urratsak egiten jarraitu dugu. Gure balioak barrurantz biziz ez ezik, baita gure ekosistema osorako aldaketa-tresna bihurtuz ere. Sareak aktibatu ditugu, ikasitakoa partekatu dugu eta nabarmendu egin dugu azken urteotan bezeroen, hornitzaileen, lankideen eta inguruko erakundeen artean elkarrekin eraikitakoaren balioa.

Erakunde baten eragina biderkatu egiten da haren balioek eta ekintzek benetan bat egiten dutenean. Hori saiatu gara eraikitzen aurtzen:

- gure bezeroak trakzionatuz, zerbitzua eragin sozialetik birdefinituz, MAHI-MAHI, Askora Nagusi eta halako ekimenekin.
- gure hornidura-katea trakzionatuz, erosketa arduratsuko plan gero eta zorrotzago eta gardenago baten bidez.
- gure ingurunea trakzionatuz, egiteko modu jasagarriagoak, inklusiboagoak eta gizatiarragoak bultzatuz.

Ondorengo orrialdeetan bidaia hori jaso da: zehaztutako ekimeneak, datuek eta helburuek eraiki dugunaren mapa osatzen dute, bai eta norantz joan nahi dugun ere.



GJH

Zaintzen gaituztenak zaintzen ditugu

Pertsonak dira Askoraren bihotza. Hor hasten da Gizarte Erantzukizuna ulertzeko dugun modua: gure proiektuaren parte direnak benetan zainduz. Taldeko pertsona bakoitza baloratua sentitzea nahi dugu, hazteko tokia izatea, egiten dugun horretan inplikaturatuta egotea eta bere lanak jantokitik haratagoko eragina duela sinestea.



Pertsonengan sinesten dugu

En Askora medimos regularmente el grado de compromiso y estabilidad de nuestra plantilla.

La tasa de fidelización refleja cuántas personas siguen con nosotros a lo largo del año — un indicador que nos habla de la salud del proyecto y de si estamos construyendo un lugar donde las personas quieren quedarse.


El porcentaje de contratos indefinidos expresa, por su parte, nuestro compromiso concreto con la estabilidad laboral de quienes nos acompañan.

76,87%

fidelizazio-tasa

87,29%

kontratu
mugagabeak



KONPROMISOA KUDEAKETAN

JOMUGA: **3.D**

Gaitasun handiagoa izatea osasunerako arriskuak murriztearen eta kudeatzearen arloan.

2025ean, uste simple baina sakon batetik abiatzen diren ekimenak eraikitzen jarraitu dugu: taldeko pertsonak ongi daudenean, gainerako guztiak hobeki funtzionatzen du. Ekintzak konpromiso horren parte dira.

Ikaskuntza-plana

Gure IKASKUNTZA-PLANA garatzen ari gara oraindik: langileen hazkunde profesional eta pertsonalari heltzeko bestelako modu bat, Askoraren balioekin lotutako ibilbide pertsonalizatu batekin.

Helburua da gaitasunak garatzea norik bere burua zaintzeko eta taldea nahiz ingurunea zaintzeko gaitasuna indartzeko. 2025ean, programak sei pilulako egitura berarekin segitu du.

2025ean egindako prestakuntzak

- Jardunbide egokiak eta alergenoen kudeaketa; adrenalinaren erabilera eta eragin jasagarria
- Adin-tarte desberdinetan baliabideen erabilera eta bizikidetzak
- Lehen sorospenei buruzko ikastaroa + BBB (bihotz-biriketako bizkortzea) eta KDEA (kanpoko desfibriladore erdiautomatikoa)
- Arteterapia
- Ergonomia aktiboa - Osasunez lan egitea
- Bizkortzeari eta desfibriladoreari buruzko prestakuntza
- Adimen artifiziala Giza Baliabideetan aplikatzea
- Bizikidetzak indartuz testuinguru ez formalean
- Adina eta lana: zahartze aktibo eta osasuntsurako gomendioak
- Adimen Artifizialari buruzko prestakuntza
- Hizkera inklusiboa
- Komunikazioa hobetzea
- Nekazaritzako Elikagaien Enpresen Zuzendaritzako Programa Aurreratua (PADEA) 2025
- Clownerako hastapena tailerra: jolasaren plazera
- Lan-absentismoa gutxitzeko eta kontrolatzeko teknikak
- Laneko eta Gizarte Segurantzako azken berriak 2025



Gainera, taldea prestatzen jarraitzen dugu, prozesu horiei ahalik eta ondoen laguntzeko.

Erakunde espezializatuekiko lankidetzak

- EDE Fundazioa: gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden pertsonentzako lan-orientazioko tailerrak
- Adecco Fundazioa: desgaitasuna duten pertsonentzako lan-orientazioko tailerrak
- RAL (Enplegu Zentro Berezia): gure garbiketa-produtuak erakunde honi erosten dizkiogu, zeinak lana ematen baitie desgaitasuna duten pertsonari.

Askora Bora-Bora

Gure hileko atalari eutsi diogu, bertan taldekide guztiak aukera dute autozaintza mental eta fisikorako doako baliabideak eskuratzeko.

2025eko berrikuntza nagusia izan da hiru hilean behingo osasun-kanpainak egitea. Lehena osasun osteomuskularrari buruzko kanpaina bat izan da, laneko lesioak prebenitzeko.

LGTBI+ plana

2025ean gure jazarpen-protokoloa berrikusi dugu: LGTBI+ ikuspegia txertatu dugu, eta indartu egin ditugu babes-esparrua eta langile guztiak erabilgarri dituzten kanalak.


Talentu gaztea integratzea

Lanbiderekin eta Gipuzkoako Ganberarekin lankidetzan segitzen dugu gazteak lan-merkatuan sartzeko. 2025ean bi erakundeek antolatutako enplegu-azoketan parte hartu dugu, lanbide-munduan sartzen diren pertsonentzako garapen-aukerak sortzearen aldeko apustua eginda.

Inklusioan BAT proiektua

Gureak elkarrekin batera inklusiorako gure bide-orrian aurrera egin dugu. 2025ean, INKLUSIOAN BAT proiektuaren esparruan, SALTOn desgaitasuna duten bi pertsona sartu dira. Gainera, lantaldea prestatzen jarraitzen dugu, prozesu horiek ahalik eta ongien laguntzeko.

Zein izan da bilakaera azken urteetan?



Berdintasuna

Askoran berdintasuna egunerokoan adierazten den uste sendoa da: ikastetxeetan, lantaldeetan, arduradunengan eta erabakiguneetan. 2025ean.

Berdintasun Plana egiten hasi gara, 2013an hasitako lanari jarraipena emanda. Urteotan zehar lidergo-postuetako emakumeen ratio altuak izatea lortu dugu.


Ekintza aipagarriak

- Emakunderen Bai Sarean parte hartzea
- ASPEGIren Adinkeriari buruzko mahai-ingurua, Askorak enpresatik zer begirada duen azaldu zuen.
- M8 kanpaina: begizta moreak dituen kutxa bat banatzen da lantoki guztietan, langileek egun horretan begizta uniformean eramateko.
- Hizkuntza inklusiboari buruzko barne-kanpaina bulegoan, langile guztiek eskuragarri dituzten material eta baliabide lagungarriekin.
- Jazarpen-protokoloa LGTBI+ ikuspegiarekin eguneratzea.

EmakumeEKINN 2025 saria Donostiako Udalaren Sustapena

Kategoria: Talentuaren eta berrikuntzaren alde emakume ikuspegiarekin egiten duen tokiko enpresa.

Sariaren bidez Askorak hasiera-hasieratik berdintasunarekin hartutako konpromisoa aitortzen du: enpresak, aukera-berdintasuna sustatzeaz gain, berdintasuna bere balioetatik bizi du, bere zerbitzuetara eramaten du eta bere inguruneei kutsatzen die. Gehien aitortutako elementuetako bat Mahi-Mahi eredia izan da, jantokietan nahiz jolastokietan berdintasuna hurrekin lantzen duena. Erantzunkide eta Emakunde sareen kide izatea ere baloratu dute, bai eta, besteak beste, Emaktiva proiektuan parte hartzea ere.



83%

Emakume zuzendaritza postuetan

67%

Emakume ardura eta kudeaketa postuetan

92%

Oinarriko langileak

KONPROMISOA KUDEAKETAN

JOMUGA:

5.5

Emakumeen parte-hartze erabatekoa eta eraginkorra bermatzea eta lidergo-aukerak areagotzea.

ASKORA GARA Kide izatearen sentimendua

Askoran ez da ziurtzat jotzen kide izatearen sentimendua: landu egiten da. 2025ean zenbait ekimenetan lan egin dugu pertsonen eta proiektuaren arteko lotura indartzeko.

Offboarding-prozesua

Offboarding-prozesu bat diseinatu eta abian jarri dugu, erakundetik ateratzen diren pertsonen esperientzia zaintzeko. Proiektuan irteerari buruzko inkesta bat ere badago, bajaren benetako arrazoiak ulertzeko, hobetzeko arloak identifikatzeko eta Employer Brandinga indartzeko. Infojobseko balorazio-eskaera bat ere jasotzen du, talentu berria erakartzeko.

Langileentzako 2025eko detaile/oparia

Aurten aterki bana opari eman diegu lantaldeko kideei. Gainera, Gabonetako lotean, ohiko pasta kutxaren ordez Casa Eceizako produktu berreskuratuen kit bat sartu dugu. Bertan pegatina bat eta QR kode bat daude, haien bitartez lankidetzeta eta aprobetxamendurako ekimena hobeki ezagutzeko.

Formación en valores y sostenibilidad

Guretzat ezin garrantzitsuagoa da langileek Askoraren helburuarekin bat egitea. 2025ean, gure balioak erakunde osoari helarazteko lan egin dugu. Aurten, langileen ehuneko honek jaso du balioei eta jasagarritasunari buruzko prestakuntza:

Norantz goaz?

2026

Hiru hilean behingo osasun-kanpainak langile guztientzat.

Askora BATZENeko harrera-enpresa gisa, gazteen emantzipazioa babesten.


ERROAK-SARTUn sartzea, orientazio eta laneratzeko enpresa laguntzaile gisa

KONPROMISOA KUDEAKETAN

JOMUGA:

8.5

Enplegu erabatekoa eta produktiboa eta langile guztientzako lan duina lortzea.



Prestakuntza

37%

2025an sortutako langileen ehunekoak



Gure ingurua hobetuz hobetzen gara

Platerean jartzen dugunak axola du. Egiteko moduak ere bai. Askoran, erabaki operatibo bakoitza aukera bat da elikadura-sistema bidezkoagoa, osasungarriagoa eta planeta gehiago errespetatzen duena eraikitzeko. Ez urruneko ideal gisa, baizik eta eguneroko praktika gisa: sukaldean, erosketan, hondakin-kudeaketan eta hornitzen gaituzten pertsonetikiko harremanean.



2025ean, kudeaketa kontzienteago, arduratsuago eta ingurunearekin konektatuago baterantz aurrera egiteko ekintzak martxan jartzen jarraitu dugu. Guztiak puntu beretik abiatzen dira: sinestea jangela batetik mundu hobe bat lortzen lagun daitekeela.

Ilido hauek landu ditugu:

- Menu osasungarriagoak kudeatzen ditugun zentro guztietan
- Erosketa arduratsuaren plana: hurbiltasunaren, jasangarritasunaren eta lan-baldintzen irizpideak
- Karbono-aztarna murriztea eta energia-efizientzia Elikagai-xahuketaren aurkako borroka.
- Jasangarritasunaren arloan trakzionatzea gure hornitzaile katea
- Zentro jasangarriari sariak ematea



Menu osasungarriak

Elikadura osasungarria kontzeptu bat baino askoz gehiago da: gure balio-proposamenaren ardatza da. Gure nutrizionista taldeak menu orekatuak diseinatu ditu, eta egokituta daude kolektibo bakoitzaren alergiaz, intolerantzia eta behar espezifikoetara, Eusko Jaurlaritzak menu osasungarri buruz emandako gomendioei jarraituz.

2025eko azaroan Abusu ikastolako familientzako hitzaldi bat eman genuen, elikadura osasungarri buruzko ezagutza jantokitik haratago hurbiltzeko. Gainera, kontratatutako jantokitik gabeko ikastetxeentzako laguntza-zerbitzuari eutsi diogu: 2025ean jarraitu dugu Larramendi Ikastolari (Mungia) aholkularitza ematen.



Gosasun zigilua

Askorak Innobasqueren Gosasun zigilua du, elikaduran ohitura osasungarrien sustatzen dituela ziurtatzen duena.

2025ean Abusu ikastolako familientzako hitzaldi bat eman genuen, elikadura osasungarri buruzko ezagutza jantokitik haratago hurbiltzeko.



KONPROMISOA KUDEAKETAN

JOMUGA:

3.D

Gaitasun handiagoa izatea osasunerako arriskuak murriztearen eta kudeatzearen arloan.

Erosketa arduratsua

2018az geroztik, erosketa arduratsuko plan anbiziotsu bat dugu. Plan horretan, gure hornidura-kate osoa ebaluatzen dugu, eta produkturik garrantzitsuenak lehenesten ditugu, tokikoa eta jasangarria dena eta lan-baldintzak kontuan hartuta.

Plan horri esker, mugarri esanguratsuak lortu ditugu 2025ean:

Haragiaren % 98 Espainiatik dator, eta % 54 Euskal Herritik

Barazki freskoaren % 100 Estatukoa da; % 44 tokiko eremuetatik dator

Eskoletako jangeletan zerbitzatzen diren arrautzen % 72 landako oiloenak dira

Arraina erosten dugunean, espeziearen jasangarritasuna eta habitata eta arrantatzeko metodoa baloratzen ditugu, eta emaitza hauek lortu ditugu:

— Arrainen % 58k Kantauri itsasoan dute jatorria edo jasangarritasun-zigilua dute

— Ingurumen- eta gizarte-inpaktu txikia izateari eman diogu beti lehentasuna, prezioaren gainetik

Uniformeak: horiek egiten dituen enplegu inklusiboko enpresarekin dugun lankidetzari eutsi diogu, eta 2025ean kanpaina bat jarri genuen abian Askoratik ateratzen diren pertsonen uniformeak berreskuratzeko eta bigarren bizitza bat emateko

Tokiko hornitzaileen eta hornitzaile txikien % 52rekin lan egiten dugu

Tokiko erosketa lehenesteaz eta inguruko ekonomia bultzatzeaz gain, gure hornitzaileei baldintza onuragarriak eskaintzen dizkiegu (adibidez, ordainketa-epe murriztuak), epe luzera konfiantzazko eta hurbiltasuneko harremanak eraikitzeko.



64%

hondakin organikoa birziklatzen du. Hau da, edukiontzia gertu dutenen % 100ek.

KONPROMISOA KUDEAKETAN

JOMUGA:

8.3

Hornikuntza-katearen bidez lanpostu duinak sor daitezzen sustatzea. Sormena eta berrikuntza, eta mikroenpresen eta ETE-en hazkundea.

Prozesu jasangarriak

Gure prozesuen jasangarritasuna prestatzen dugun janaritik askoz haratago doa. 2019tik, kontsumitzen dugun elektrizitatearen % 100 iturri berriztagarrietatik dator. Beharrezkoak ez direnean txorrotak ixtearen garrantziaz kontzientziatzeko lanean dihardugu.

Elikagai-xahuketaren aurkako borroka da oraindik gure ardatz estrategikoetako bat. 2021ean, «Elikagaien Xahuketaren aurkako Euskadiko Plataforma» delakoarekin bat egin genuen, eta aurrera egiten jarraitu genuen, zero hondakin eragiteko helbururantz. 2025ean, emaitzek benetako aurrerapena erakusten dute:

3,39%

Neurtutako sukaldeen xahuketaren batez bestekoa

29,1%

Murrizketa aurreko urtearekin alderatuta

Ez dugu lortu 2025erako ezarri genuen % 50eko murrizketaren helburua, baina joera argia da, eta helburua lortzeko lanean jarraitzen dugu. Xahuketaren eguneroko jarraipena eta bezeroen eta kalitate-taldearen inplikazioa dira aurrerapenaren gakoak.

Gure sukalde eta bulegoetan, material biodegradagarria erabiltzen eta papera, plastikoa, tonerrak, pilak, bonbillak eta ekipu elektronikoak berezita birziklatzen ditugu. Posible den udalerrietan, hondakin organikoak ere bereizten ditugu.

KONPROMISOA KUDEAKETAN

JOMUGA:

12.2

2030erako, baliabide naturalak modu jasangarrian kudeatzea eta modu efizientean erabiltzea.



Tailerrak hornitzaileekin

2025ean aurrerapauso bat eman dugu, jasangarritasunaren trakzioari dagokionez, gure balio-kate osoan zehar.

Horretarako, tokiko zazpi hornitzaileekin bisitak eta ezagutza-tailerrak antolatu ditugu, taldeak uler dezan darabiltzan produktuak nondik datozen eta hurbileko produktuaren alde zergatik egin behar duen:

- Zuzen Arrainak. Arrantza jasangarria, arrainen jatorria eta produktu freskoaren eta hurbileko produktuaren kontsumoa
- Galdeano patatak. Patatak elikaduran zer garrantzia duen, bariatateak eta oinarriko produktu eta tokiko produktu gisa zer balio duen
- Jauregui jogurtak. Artisanu-jogurtak egitea eta hurbileko esnekien kontsumoaren balioa
- Euskaber. Arrautzen ekoizpen jasangarria, animalien ongizatea eta hurbileko kontsumoa
- Kaiku. Baserrian oinarritutako esne-ekoizpen eredua eta tokiko lehen sektorearen garrantzia
- Errotik. Elikagaien jatorria, ekoizpen jasangarria eta naturarekiko errespetua
- Sulabe. Ogia egitea, irin motak eta ore amak euskal elikagaien tradizioan zer balio duen

KONPROMISOA KUDEAKETAN

JOMUGA:

14.C

Ozeanoen eta haien baliabideen kontserbazioa eta erabilera jasangarria hobetzea.

Descarbonización

Zuzenean dugun karbono-aztarna (1. eta 2. irismena) oso txikia da oraindik, azken urteetan metatutako ekintzei esker. 2025ean 7 ibilgailu erdihibrido ditugu gure flotan, eta 15.618,5 litro erregai kontsumitzen ditugu guztira. 2. irismeneko isuriak 0 dira, kontsumitutako elektrizitatearen % 100 energia berriztagarrietatik datorrelako.

Energia-efizientzia eta mugikortasuneko gure ekintzei esker:

Kontsumitutako elektrizitate guztia iturri berriztagarritik dator: urte batean ehunka zuhaitzek atzitzen dutena adinakoak dira saihesten ditugun 2. irismeneko emisioak

7 ibilgailu erdihibridoek esker, nabarmen murrizten dugu erregai-kontsumoa flota konbentzional baliokide batekin alderatuta

45,82%

Sukaldeetan **gas propanoaren erabilera** murriztea lortu da

2025ean zerbitzatutako menuak, guztira: 1.750.000

1. eta 2. irismeneko karbono-aztarnaren 2025erako behin betiko kalkulua egiten ari gara ekitaldiko datu guztiekin. 2026an, 3. irismenari ere helduko diogu, eta balio-katearen zeharkako emisioak barne sartuko ditugu.



Zentro Jasangarrien sariak

2025ean, sariak banatu dizkiegu gure sareko zentro jasangarrienei — helburu hori 2024ko Memorian ezarri genuen, eta errealitate bihurtzea lortu dugu.

Aitorpen horrek saritu egiten ditu gure zentroetan dauden ingurumenaren eta kudeaketa arduratsuaren arloko praktika onak, eta haren helburua da gainerakoak inspiratzea eta sare osoan etengabeko hobekuntza bultzatzea.

Norantz goaz? Xedeak

2025* Ikastetxe jasangarriari sariak ematea
* Helburua beteta


2026 Gure CO₂ emisioen zati bat konpentsatzea

2025* Elikagaien xahuketa % 50 murriztea*
% 29,1eko murrizketa lortu da (aurrera jarraituko dugu)

2030 Zero hondakin

2026 1., 2. eta 3. irismeneko karbono-aztarna neurtzea

2050 Klima-neutraltasuna





Zentzuzko berrikuntza

Berrikuntzak zentzua du benetako galdera batetik abiatzen denean: zertarako? Askor-
an ez dugu berrikuntzarik egiten egitearren Berrikuntza egiten dugu uste baitugu sukala-
daritza kolektiboak gizartea eta ingurumena eraldatzeko palanka gisa jardun ahal eta
behar duela. Uste sendo horrek gidatzen du abian jartzen dugun proiektu berri bakoitza.

Elikadurari buruzko kontzientzia sortzea zer jan irakastea baino askoz gehiago da: elika-
gaien jatorriaz, gure erabakien eraginaz, kontsumitzen dugunarekin dugun harremanaz
eta eraiki nahi dugun munduaz hitz egitea eskatzen du.



2025ean, balio horri bizia ematen dioten ekimenak hedatzen eta sakontzen jarraitu dugu. Eskola-jantokietako berrikuntza pedagogikotik hasi eta etorkizunari buruzko hausnarketarako guneetara, proiektu bakoitzak helburu argi bat du.

MAHI-MAHI: helburu jakineko jangela-zerbitzua

Mahi-Mahin eskolako jantokia bizia duen gunea bihurtzen dugu. Jateko unea ez da eskolen arteko etenaldi bat: ikasteko, harremanak izateko, deskubritzeko eta hazteko aukera bat da.

Uste sendo horrekin, ikastetxeko balio pedagogikoak jantokiko eta patioko txoko guztietan integratzen dituen eredu bat diseinatu genuen.

Duela sei urte abiatu genuen proiektu honek nazioarteko (Service Design Award 2017 finalista) eta Estatuko (Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Esperientzietan bigarren saria, Gipuzkoako Foru Aldundia, 2019) aintzatespena jaso du.

-x + = 2025eko prestakuntza-ekintzak

- Lehen sorospenak
- Gatazkak konpontzea
- Barreterapia
- Arteterapia
- Adingabea babestea
- Adingabearen zaintza emozionalean laguntzea

👥 Sentsibilizatorako tailerrak lankidetzan 2025

- Apropox
- Biak Bat
- Maite Frank
- Oreka TX
- Itsas Salbamendu Humanitarioa
- Alluitz
- Birziklatu
- Ameli
- Guztiok
- Mater Itxas Museoa

2.947

2025ean artatutako haurrak

Programa esperimental DBH 1eko ikasleekin, 2025eko bilakaera

2025ean beste pauso bat eman dugu DBH 1eko ikasleekin hasi genuen programan. Aurreko ikasturtean ikasitakotik asmo handiagoko planteamendu batera igaro gara, esku-hartzea bi norabidetan hedatuta:

- Atzerantz: LH 6 — patio denboretan elikadurari buruzko ikaskuntza-dinamikak sartzea
- Aurrerantz: DBH 2 — bigarren mailako ikasleak eragile aktibo eta DBH 1en finkatzen diren esku-hartzeen kolider bihurtzen dira.

Jada ikusi ditugun emaitzak:

- Ikasleek parte-hartze handiagoa izatea jantokiko dinamiketan, eginkizun esperientzial eta protagonistagoarekin
- Elikadura osasungarriari buruzko kontzientzia handiagoa, batez ere pertsona bakoitzak bere kontura hartzen dituen erabakietan (gosaria, hamai-ketakoa)



KONPROMISOA KUDEAKETAN

JOMUGA: 4.7

Ikasle guztiok garapen jasagarria sustatzeko behar diren ezagutzak eskuratzen dituztela ziurtatzea.

Askora Nagusi

Askora Nagusi duela zortzi urte baino gehiago sortu zen ideia argi batekin: adinekoek beste edozein pertsonak duen arreta integral, zaintza eta kalitate bera merezi dute.

Egoitzetako elikadura-zerbitzua ez da osagarri bat: ongizatearen funtsezko zatia da.



Galderak – Askora Future Lab

2025ean Galderak jarri dugu martxan. Gune hori sortu dugu elikaduraren, hezkuntzaren eta jasangarritasunaren etorkizunari buruzko galdera handiak egiteko eta partekatzeko.

Proiektu hau Askora Future Lab ekimenaren barruan sartzen da: hausnarketa eta berrikuntza esparru bat da, kanpoko eragileekin mintzatzeko eta elkarrekin datozki-gun erronkak esploratzeko.

Orain, hurrengo proiektu handiaren garapen betean gaude. Proiektuaren helburua da 2026ko ekaina baino lehen hiru topaketa sortzea, gure gizartearen etorkizunerako funtsezkoa den belaunaldi bat prestatzeko garaian hezkuntza sistemak dituen erronka handietako batzuei buruz hausnartzeko. Horrela, gaur egun Euskadin ez dagoen espazio bat bete nahi dugu, eta funtsezkoa iruditzen zaigu inspirazio iturri izango diren, hausnarketak sortuko dituzten eta aldaketak eragingo dituzten ahotsak aurkitzeko.

Topaketa horiek tematikoak izango dira, eta gaien aditua den pertsona bat, politika publikoei lotutako norbait eta Euskal Herriko ikastetxe batean bere jardura pedagogikoa garatzen duen pertsona bat izatea gus-tatuko litzaiguke. Horietan, landuko diren gaiei buruzko elkarrizketa hurbil eta sakon bat sortu nahi dugu, eta, beraz, bertaratutakoek, hezkuntza sektorearekin lotura dutenek (ikastetxe eta ikastoletako zuzendariak, irakas-leak...), ez dituzte 50 pertsona baino gehiago izango.



425

2025ean Askora Nagusian **artatutako pertsonak**

Adinekoentzako elikadura-hezkuntzako ekintzak garatzen jarraitzen dugu: disfagia duten pertsonentzako elikadurari buruzko eduki espezifikokoak, ingurunearekin komunikatzen laguntzen duten materialak eta bizitza aktibo eta osasungarriari buruzko dibulgazio-artikuluak.

KONPROMISOA KUDEAKETAN

JOMUGA: 3.D

Gaitasun handiagoa izatea osasunerako arriskuak murriztearen eta kudeatzearen arloan.



Txiki izateak handi egiten gaitu

Benetako inpakturik ez da bakarka eraikitzen. Askoran badakigu gure eraldaketa-gaitasuna hazi egiten dela aliantza sendoak ehuntzen ditugunean, ingurukoei entzuten diegunean eta gure baliabideak negoziotik haratago doazen kausen zerbitzura jartzen ditugunean. Gure komunitatea —bezeroak, erabiltzaileak, familiak, erakunde sozialak garenaren parte da.

Komunitate jasangarri bat aliantzetatik eta konpromiso partekatutik ere eraikitzen da. 2025ean, inguruko pertsonekin eta erakundeekin dugun harreman-sarea indartzen jarraitu dugu, gurekin lan egiten dutenentzat garrantzitsuak diren arrazoiekin bat eginda.



Gure bezeroentzat garrantzitsuak diren kausetan lankidetzan aritzea

Urtero, gure bezeroen kausak gureak ere bihurtzen dira. Baliabideak, denbora eta ahalegina lagatzen ditugu, lan egiten dugun inguruneetan guztion ongizatea sustatzen duten ekimenak laguntzeko.



2.947

2025ean artatutako hurrak

KONPROMISOA KUDEAKETAN

JOMUGA: 4.7

Ikasle guztiak garapen jasangarria sustatzeko behar diren ezagutzak eskuratzen dituztela ziurtatzea. Axola zaizkigun kausetan sentsibilizatzea

Axola zaizkigun kausetan sentsibilizatzea

2025ean gure ikastetxeetara sentsibilizazio-ekintzak eramaten jarraitu dugu, ikastetxeei arreta berezia emanda:

- Ahozapi moreak, Genero Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunagatik, ekintza hau urtero egiten dugu
- Eguberrietako elkartasunezko ekintza: dohaintza UNICEF erakundeari, «Hotza Gazara heldu da», elkartasunezko keinu bat muturreko zaurgarritasun-egoeretan dauden pertsonekin



12

babestutako gizarte-ekimen

KONPROMISOA KUDEAKETAN

JOMUGA: 11.4

Munduko ondare kulturala eta naturala babes- teko ahaleginak areagotzea

Sarean handi egiten gara

Beste batzuekin batera eraikitzeko balioan sinesten dugu. Gure balioak partekatzen dituzten eta banaka egiten dugunaren inpaktua biderkatzen duten sare eta ekosistemetan aktiboki parte hartzen dugu. Lankidetzaren aktibistak gara:

- Elikaduraren Klusterra, ASPEGI eta APD, sektore-trakzioa eta enpresa-lankidetzaz
- EHU eta LHko ikastegiak, gazteen enplegarritasuna eta lanbide-aukerak sortzea
- Emakunde eta Erantzunkide (Gipuzkoako Foru Aldundiaren Sarea) — genero-berdintasuna enpresa-eremuan
- AdinBerri, Silver Economy eta zahartze aktiboa
- Erika/Hazi/Innobasque — elikadura osasungarria eta berrikuntza sektorean
- Naturklima, Euskadiko Jasangarritasunaren Atlas, GK RECYCLING Klusterra, jasangarritasuna eta ekonomia zirkularra
- Gureak eta EDE Fundazioa, bazterketa-arriskuan dauden pertsonen inklusioa
- Bikain zigilua, euskararen hizkuntza-normalizazioa eremu sozioekonomikoan



Gure balioak partekatzen dituzten eta banaka egiten dugunaren inpaktua biderkatzen duten sare eta ekosistemetan aktiboki parte hartzen dugu.

Norantz goaz? 2026ko xedeak

2026 BATZEN: Askora emantzipazio-prozesuan dauden gazteentzako harrera-enpresa gisa, haien independentzia ekonomikoa babesten.

ERROAK-SARTU: bazterketa-arriskuan dauden kolektiboentzako lan-orientazio eta laneratzeko prozesuetako enpresa laguntzailea

KONPROMISOA KUDEAKETAN

JOMUGA: 11.4

Munduko ondare kulturala eta naturala babesteko ahaleginak areagotzea

2025an zein erakunderekin lan egin dugun



Askora Taldea

ASKORA

